



SAREKIDEN ARGAZKILARITZA SOZIALAREN VII. LEHIAKETA

Sarekide Erakundeak, Getxoko boluntariotza sustatu eta indartzea eginkizun nagusitzat duen boluntariotzako entitateen erakundeak, Argazkilaritza Sozialaren VII. Lehiaketa antolatzen du GETXOKO BOLUNTARIOTZA ETA JARDUERA SOZIALEKIN lotutako egoerak agerian jartzeko xedearekin.

1.- HELBURUA.- Lehiaketako helburu nagusia Sarekidek dituen jardueren artean funtsezkoa dena ezagutaraztea da, boluntarioen lana gizartean zabaltzea, hain zuzen ere. Horretarako, argazkigintza digitala bezalako tresna hain garaikidea den tresna erabiliko da.

2.- PARTE-HARTZAILEAK.- 14 urtetik gorako edozein pertsonak parte har dezake, argazkigintzan profesionala izanda edo ez, bakarka edo taldeka. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake, bakarka zein taldeka parte hartuz gero. Parte-hartzaileak aurkeztutako lanen egile bakarrak izateaz, bitartekoen eskubiderik ez egoteaz eta argazkiekiko irudi-
eskubideak direla eta egon daitezkeen erreklamazioez arduratzen dira. Lehiaketa honetan parte hartze hutsak oinarri hauek ezagutzea eta onartzea dakar, baita Sarekidek egin ditzakeen aldaketen onarpena ere. Partaidetza doakoa da.

3.- GAIK.- Parte hartzen duten argazkiek gai sozialekin edo boluntariotzarekin zerikusia duten egoerei buruzkoak izan beharko dute. Lehiaketatik kanpo geratuko dita eraso-konnotazioak dituzten lanak, sentsibilitateari kalte egiten diotenak edo pertsonen duintasunaren aurka doazenak.

4.- ARGAZKIEN EZAUGARRIAK.- Argazkiak formatu digitalean aurkeztu behar dira. Argazkien teknika edozein izan daiteke, eta gaia askea izango da, beti ere deialdi honen inprimaki honen aurreko puntuan aipatzen den gai soziala era batean isladatzen bada. Lanak zuri-beltzean edo koloreetan aurkez daitezke. Argazkiek originalak behar dute izan, aurretik argitaratu izan ez direnak. Koadro bakarreko (single frame) argazkiak onartuko dira bakarrik. Erakusketa anitzak lehiaketatik baztertuko dira. Argazkiak bi formatuetan aurkez daitezke, biak onargarriak izanez: **argazki kamara** batekin (profesionala ala ez) ateratako argazkia, formatu digitalean (JPG) auzetuko dena, RGB kolore profilaz, 2048 x 1536 pixel gutxienezko tamainuaz aldeetan eta 300 dpiko gutxienezko bereizmenaz; eta **gailu mugikor baten kamara** batekin egindako argazkia, .jpg formatuan aurkeztuko direnak, 2048 x 1360 pikeletako bereizmen gomendatuarekin.

Irudi guztiek izenburu bat eduki behar dute, argazkiari eman nahi zaion esangura adieraziko duena. Egindako lekua zehaztu behar da eta azalpena testu batean ager daiteke (gehienez 100 hitz). Oinarriak errespetatzen ez dituzten argazkiak baztertuko dira, baita eraso-konnotazioak dituztenak, sentsibilitateari kalte egiten diotenak edo pertsonen duintasunaren aurka doazenak ere. Argazkian identifikagarri gerta daitezkeen pertsona baten irudia agertzen bada, beharrezkoa izango da pertsona horren baimena, edo bere tutorearena, adingabekoa edo desgaitua izanez gero.

5.- LANEN AURKEZPENAK.- Irudi digitalek ez dute parte hartzailearen identifikaziorik eduki behar. Posta elektronikoz bidaliko dira sarekidefoto@gmail.com helbidera, .jpg formatuan. Mezuaren gaiari "Sarekideko Argazkilaritza Sozialaren VII. Lehiaketa" testua agertuko da. Mezuaren gorputzean edo aparteko agiri batean lanari emandako izenburua, azalpen testua (nahi izanez gero) eta egileen datuak zehaztuko dira: izen-abizenak, posta-helbidea, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefono zenbakia.

Parte hartzaileek artxiboen bidalketarako balio duten plataformak edo konprimatze tresnak erabil ditzakete argazkiak bidaltzeko, aurretik aipatutako posta elektronikora. Mezuaren gaia "Sarekideko Argazkilaritza Sozialaren VII. Lehiaketa" izango da eta mail horretan lanari eman zaion izenburua, azalpen testua (nahi izanez gero) eta egileen datuak (izen-abizenak, posta-helbidea, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefono zenbakia) zehaztuko dira. Epaimahaiak ez du argazkien jatorria ezagutuko bere iritzia ematerakoan. Egilearen izena ez da ezagutuko saria esleitu arte. Epaimahaiaren iritzi desegokiak, iraingarriak, bortitzak, sexistak, arrazistak diren edukiak baztertuko dira, baita pertsonen funtsezko eskubideak kalte egiten dituztenak ere.

Abenduaren 5eko Datu Pertsonalen Babesarako eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa kontutan hartuz, Sarekideri bidaltzen diren partaideen datu pertsonalak lehiaketaren garapena bermatzeko eta sarituetako bat izanez gero, partaideekin harremanetan jartzeko erabiliko direla jakinarazten da. Nahi izanez gero, legeak ezartzen dituen sarbide, zuzenketa, ezeztapen, tratamenduaren mugaketa, lekualdaketa edo aurkaritza eskubideak erabili ahal izango dira info@sarekidegetxo.org posta elektronikora idazki bat bidaliz.



6.- ONARPEN EPEA.- Argazkiak **abenduaren 1era arte** bidali ahal izango dira aurretik aipatutako helbide elektronikoan.

7.- EPAIMAHAIA ETA EPAITZA.- Lanak Sarekideko kideren batek, Getxoko Udaleko ordezkari instituzionalen batek eta irudi eta argazki munduko profesionalek edo Getxoko beste agente batzuen ordezkariak baloratuko dituzte. Aurten, gainera, popularraren botoa izango dugu.*. **Kontutan hartuko diren alderdiak honako hauek izango dira beste batzuen artean: lanaren sentikortasuna, originaltasuna, isladatzen diren balioak, eta baita irudiaren kalitatea, sormena eta balioekin duen kidesuna ere.** Epaimahaiak erabakia hartuko du argazkiak jasotzeko epea bukatu eta hogeita hamar egunetara. Lanen kalitatea kontutan hartuz, Epaimahaiak sari guztiak edo baten bat esleitu gabe utzi ahal izango ditu.

* Herritarren botoa: argazkiak bidaltzeko epea amaitzen denean, bozketa online irekiko da. Boto gehien dituzten bi argazkiek epaimahaiaren balorazioan puntu bat izango dute. Argazki horiek Sarekideren Facebookeko plataforma baten bidez argitaratuko dira, obraren izena soilik jarrita, eta botoa emateko epe bat emango da.

8.- LANEN JABETZA.- Sarekidek jasotzen dituen lan guztiak erabili ahal izango ditu edozein formatutan eta bere argazki eta dokumentu-hondoen parte izango dira. Sarekidek nahi dituen euskarrietan helarazi ahal izango ditu (webean, twitter, Facebook, erakusketak, liburuxka... edo beste sare sozialetan) beti hauen egiletza adieraziz.

Aukeraturako lanen edo sarien egileak lehiaketaren oinarriak onartzerakoan, Sarekideri baimena ematen dio era ez eskusibo batetan, bere lanaren erreproduzio, banaketa eta komunikazio publikoa egiteko honako baldintza hauetan:

Erreproduzio eskubidea, deialdi honekin erlazionatutako publizitate kartelak eta prentsako agerraldiak sustatzeko, Sarekideko proiektu eta kanpainetan, erakusketen katalogo, blog eta liburuxketan, Sarekideko webgunean, sare sozialetan (Flickr, Facebook eta Twitter) eta erakundearen ekintza eta kanpaina desberdinetan. Banaketako eskubidea, prentsa, aldizkari eta katalogoetan hedapena egiteko, baita komunikabideetan argitaratutako erreportaiak eta artikulua laguntzeko ere, beti ere irudien egiletza aipatuz. Komunikazio publikoaren eskubidea, erakusketa publikoaren eta eskura ipintzearen modalitateetan, aukeratutako eta saritutako lanekin, aurretik aipatutako erakusketak eta publizitate kartelak egin ahal izateko edo bitartekoei webgunea erabiltzeko baimena emateko, hurrenez hurren.

Irudiak beti erabiliko dira euren egilearen izena aipatuz. Aurkeztutako argazkiak ez zaizkie egileei bueltatuko. Jabetza intelektualari dagokionez, partaideek indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratzen dira, eta irudi beraren eskubidea bermatuko dute, Sarekidek hautatuko dituen komunikabide eta euskarri desberdinetan eta erakundearen proiektu edo kanpainetan lanaren hedapena eta erreproduzioak, partaidearengan edo bitartekoengan kalte egingo ez duela erantzukizunez adierazten dute.

Lehiaketan aurkeztutako argazkien egileak, sarituak izan ez direnak, Elkartearekin harremanetan ipini ahal izan dira aurkeztutako lanaren eskubideak berreskuratzeko, aurkeztu den data eta utebetara eta erakusketa eta hedapen ekintzak antolatu ondoren.

9.- SARIAK.- Aurkeztutako diseinuen artean epaimahaiak irabazle bat aukeratuko du. Irabazle horrek Argazki Kamera Digital Trinkoa (Uraren eta Kolpeen Erresistentea) jasoko du sari gisa. Kodak_PIXPRO_WPZ2 + 50 euroko balea Getxoko argazki-establezimendu batean gastatzeko (edo antzeko ezaugarriak dituen oparia). Era berean, argazki kamera baten accesit saria emango da, bat-bateko inprimaketarekin (edo antzeko ezaugarriak dituen opariarekin).

10.-SARI BANAKETA.- Sarekidek irabazleei erabakia jakinaraziko die eta ohiko euskarrien bidez jakitera emango du. Gainera, ekitaldi bat antola dezake sari banaketa egiteko.

Sarekidek argituko ditu oinarri hauetan esplizitu edo inplizituki agertzen ez diren alderdiak.

Lehiaketan parte-hartzeak oinarrien onarpenera dakar.